

Homomonument



IMANOL ALVAREZ
IRAKASLE OHIA

Holandako LGBT mugimenduak bultzaturik, 1987an inauguratu zen Amsterdamen *Homomonument* izeneko oroigarria, nahiagotasun sexualagatik jazarpena jasan duten gay-trans-lesbianen omenez. Naziek kontzentrazio-esparruetan ustezko homosexualak markatzeko erabiltzen zuten hiruki arrosa du oinarri. Hiruki arrosa da gaur ere mundu osoko LGBT mugimenduaren ikurretako bat, ortzadarraren ikurrina baino borrokalaria goa ere badena, nolabait esatearren.

Harrez geroztik, munduko beste hainbat lekutan eraiki dira antzeko oroigarriak. Euskal Herrian ere badago horrelako bat, nahiz eta ez izan oso ezaguna. Esango nuke euskal lesbiana-gay-trans eta abar askok jakin ere ez dakiela, neurri handian medioek ez ziotelako behar besteko oihartzunik eman.

Orain hamar urte, 2009ko maiatzaren 16an inauguratu zen Durangon, Landako eremuan, *Gay Oroitarria*. Bertan jartzea erabaki genuen gehienbat Liburu eta Disko Azokaren baitan sortu zelako 1976an euskal LGBT mugimendua izango zena gauzatzearen asmoa. Koldobika

Koldobika Jauregik eginiko *Kantu Isila* granitozko eskultura da, eta plaka batean Jon Maiak idatziriko bertsoa dauka. EHGAMEk nahi izan zituen omendu modu horretan frankismo-garaiko "beste biktimak", beti ahaztuak izan direnak

Jauregik eginiko *Kantu Isila* granitozko eskultura da, eta plaka batean Jon Maiak idatziriko bertsoa dauka. EHGAMEk nahi izan zituen omendu modu horretan frankismo-garaiko "beste biktimak", beti ahaztuak izan direnak; hots, euren maitatzeko modu diferenteagatik atxilotuak edo fusilatuak izan ziren haiek. Ekitaldian, Jon Maia bertsolariarekin batera, Jauraritzako Gizarte Arazoetako sailburu Gemma Zabaletak, Durangoko

alkateorde Marijo Balierrek, Martxelo Alvarez Ahaztuak elkarteko ordezkariak eta nik neuk egin genuen berba. Hamar urte baino ez dira pasatu, baina zenbait ñabardura direla-eta ematen du askoz denbora gehiago iragan dena. Adibidez, *gay* deitu genion. Gaur egun ziur asko *LGBT Oroigarria* esango genion. *Gay* hitza irekiagoa zen orduan nonbait.

Durangoko oroigarriak denbora pasatze horren ondorioak nozitu ditu, eta txukuntzea behar du. Alkateak horretan ari direla ziurtatu digu. Stonewalleko LGTBaren aldeko jendea poliziaren kontrako oldartu zeneko 50. urteurrena ospatzen dugun urtean, memoriaz hitz eta pitz gabiltzan honetan, nahi genuke beste ekitalditxo bat egin laster bertan, garrantzikoa baiteritzogu berriro ere biktima horiek ez ahazteari.

Amaiera modura, hona Jon Maiaren bertsoa: Frankismoaren aro beltzean, sexuen askatasuna/defendatuaz koloreztatu zenuten etorkizuna/Zokoratua izan zen zuen kontzientzia, gaytasuna/Bihotz haragiz pairatu arren plazera eta maitasuna/ gure oinarri sendo da zuen harritzko duintasuna/. ●



Soziolinguistika aldizkaria

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA.
Martin Ugalde K.P. / 20140 - ANDOAIN
kluster@soziolinguistika.eus
bat.aldikaria@soziolinguistika.eus
<http://www.soziolinguistika.eus/bat>

BAT 110: ARNASGUNEAK. ETORKIZUNeko ERRONKAK

BELEN URANGA: Hitzaurre gisa.

MIKEL ZALBIDE: Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak.

KIKE AMONARRIZ: Arnasguneak. Zer ziren, zer dira eta zer izango ote dira? Arnasguneen inguruko sarrera autobiografikoa.

XABIER BENGOTXEA: "Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak" aurkezpenari iruzkinak.

IÑAKI IURREBASO: Hego Euskal Herriko Arnasguneak zenbatzen. Arnasguneen operatibizazioaren inguruko ekarpena.

LIONEL JOLY: Arnasguneen eta RLS-en etorkizuneko erronkak nagusiak.

MIKEL ZALBIDE: Arnasguneen hauspoa: saio-amaierako zenbait ohar.